

'Lasa-Zabala auzia' Lekukoen deklarazioa

Sancristobalek baieztatu du Iparraldean poliziak eta guardia zibilak ibiltzen zirela

Ez zela errefuxiatuen kontrako legez kanpoko ekintzarik egitea erabaki dio, hala ere

Eider Goenaga / Madril
Berriemaile berezia

1983an Espainiako Polizia, Guardia Zibila eta CESIDeko kideak Iparraldean zebiltzan, Julian Sancristobalek atzo deklaratu zuenez. Garai hartan Bizkaiko gobernadore zibil izandakoak esan zuenez, gainera, Gobernu sozialistako kideak jakinaren gainean zeuden. Sancristobalen arabera, baina, «informazioa biltzea zen Segurtasun Indarren helburua eta ez legez kanpoko ekintzarik egitea».

SANCRISTOBALEK azaldu zuenez, «kalean zegoen» Iparraldean ETaren kontra egiteko bide berriei buruzko eztabaida, «Frantziak ez baitzuen laguntzen». Akusazio partikularreko abokatuak ZEN planaren helburua hori al zen galdetzean, baina, honela erantzun zion: «ZEN planean bazegoen puntu bat Iparraldean ekiteari buruz, baina ez zen garrantzitsua poliziak aurretik baitzeuden han».

Adierazpen horrekin Sancristobalek zuzenean gezurtatu zuen Rafael Verak esandakoa; Verak Iparraldera pasatzeko debekua zutela adierazi baitzuen bere deklarazioan. Ildo horretan, Verak horren berri ba ote zuen galdetu zioten, eta baietz erantzun zuen: «Verari ez genion egunero ematen Iparraldeko lanari buruzko informazioa, baina emaitzaren bat zegoenean berehala ematen



Julian Sancristobal, Estatuko Segurtasunerako zuzendari izana, atzo, epaiketan deklaratzeko.

zitzaion horren berri».

Sancristobalek, hala ere, ezagutza hori gehiagok ere bazutela dio. «1983ko udaberrian bilera bat izan genuen Guadarraman Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako gobernadore zibilek, Jose Barrio-nuevo Barne ministroak, Rafael Vera Segurtasunerako Estatu idazkariak eta hainbat euskal buruzagi sozialistek; hala nola, Jauregik, Benegasek eta Danboreneak. Ez zen legez kanpoko ekintzarik egitea pentsatu, baina bai aurretik zeuden poliziak horiek hobeto funtzionatzeko era pentsatu», adierazi zuen.

Ondoren esandakoek

zalantzan utzi zuten ezezko borobil hori. Izan ere, Sancristobalek onartu egin zuen 1983an Larretxea bahitzeko saioan eta Segundo Mareyren bahiketan parte hartu zuela. Gainera, Sancristobalek esan zuen bi saio horiek Veraren babesarekin egin zirela. Iruinek Larretxea bahitzeko saioan GEOkoek eta Bartzelonako hainbat poliziak izandako parte hartzeari buruz galdetzean, honela esan zuen Sancristobalek: «Ezinezkoa litza-teke haien laguntza dagokion baimena gabe, eta baimena Verak baino ezin zuen eman».

Sancristobal 1984an Verarekin eskuz esku aritu zen

lanean Barne Ministerioan, Segurtasunerako Estatu zuzendari gisa. Hain zuzen ere, kargu horretan zegoela joan zitzaion Francisco Alvarez GALEko atentatuak erreibindikatzeke zigiluak erakustera. Sancristobalek onartu zuen GALEn siglak berak asmatu zituela Segundo Marey bahitu zutenean, baina ez zuen jakin azaltzen zergatik erabili ziren handik hilabetera Lasa eta Zabala-ren hilketak erreibindikatzeke. Iñigo Iruinek gogorarazi zion, gainera, beste 27 atentatu erreibindikatu zirela GAL siglekin, baina Sancristobalek ez zion erantzun.

De Federicok dio Miguelizek ez zuela deklaratzeko dirurik jaso


LASA-REN eta Zabala-ren hilketak ikerzteko osatutako batzordeko buru Enrique de Federicok deklaratu zuen atzo Entzutegi Nazionalan. Defentsa hainbat aldiz saiatu da haren lana deskalifikatzen, baina atzo, hiru ordu inguruko galdeketa ostean

an, ez zuen helburua lortu. De Federicok bereari eutsi zion, eta argi utzi zuen lau urtetan egindako ikerketa judizialean ez dela neglijentziarik edo manipulaziorik egon.

Defentsak erabili argudioetako bat hau zen: De Federicok diru berezietatik

zazpi milioi pezeta ordaindu zizkiola Pedro Luis Migueliz Txofo-ri kasu hone-tan deklaratzeko. Herenegun, baina, Margarita Robles-ek ezezko borobila eman zuen hori galdetu ziotenean, eta diru berezien kontuak aurkezteko prest zegoela gaine-

ratu zuen. Horrek zalantza gutxi utzi zuen horren inguruan, baina atzo De Federicok zera gaineratu zuen: «Miguelizek dirua eskatu zuen, baina ez zitzaion eman. Eta Entzutegiak lekuko babestuen estatusa eman zioneandeklaratzea erabaki zuen».



Enrique de Federico.

Frantziako Estatuari oldartzeko deia egin du Gazteriak taldeak

Ortzi Idoatek eta Yves Machicotek Armadari uko eginez abiatu dute kanpaina

Hur Gorostiaga / Baiona

GAZTERIAK Ipar Euskal Herriko gazte erakundeak Frantziar Estatuari oldartzeko deia egin zuen atzo. Gizarteko arlo guztietan «Estatuaren inposaketari aitzin» egiteko kanpainaren hastapena iragarri zuten. Hala nola, Ortzi Idoate eta Yves Machicote gazte-ek Armadarekiko intsumiso egitea izanen da lehen ekimena.

Ondotik, euskara eta ikasketa mailan, kiroltan edo presoan aldeko borrokan hainbat ekimen egingo dituzte. «Udalbiltza izan da, lurraldetasun eta demokrazia printzipioak kontuan hartuz, desobedientzia ekimen inportante baten hastapena. Estatuenganik apurrik itxoin gabe, gure tresnak eraikiko ditugu, berenei uko egingez», esan zuten. Gazteriak eta Jarraiko ordezkariak Suprefetura aitzinean bilduko dira gaur arratsaldeko hiruretan, Daniel Dergiren egoera salatzeke.

Lizarra-Garaziko foroa Italiako Parlamentuan izan da ordezkaritza batekin

Erredakzioa / Donostia

LIZARRA-GARAZI-KO Adierazpena nazioartean ezagutarazteko helburuarekin, foro horretako ordezkaritza bat Italian da atzodanik. EAJko Pello Caballero, EAKo Begoña Lasagabaster, EHko Fernando Barrena eta ABko Jérôme Prieto Italiako Legebiltzarreko Kanpo Harremanetarako batzordeko kideekin bildu ziren, eta baita Francesco Cossiga lehendakari ohiarekin ere.

Legebiltzarrean komunikabideekin hitz egin zuten foroko kideek. Lasagabasterrek esan zuenez, Euskal Herrian bakea lortzeko prozesu politikoa luzea eta zaila izango da, baina Lizarra-Garazik konponbide, elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik jotzeko apustua egin du.